

B

BARREN

TOKIKOM


EUSKARAK

365

EGUN

Pagoerrotta iturgintza

Pagoerrotta Iturgintza 2005. urtean sortu genuen, eta ordutik, ibilbide handia dugun profesionalak gabiltza lanean. Pagoerrotta iturgintzak eskaintzen dituen zerbitzuak asko dira, eta iturgintza zer-



bitzuez aparte, gas munduan, berogintza eta igeltseritzan ere aritzen gara. Horrez gain, Mendaron dugun lokalean bainuko altzari eta osagaien erakusketa zabala aurkituko duzu, bainurako behar duzun guztiarekin.




Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44
Faxa: 943 75 60 37
Mugikorra: 659 334 323
E-mail: pagoerrotta@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

PAGOERROTA ITURGINTZA

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza





Danele Sarriugarte

Mikel: Hitzeman nitzun bestelako eremuetan barrena hegan egingo nuela zozo izatea hurrengo egokitzen zitzaidanean, baina ezin izan dut, errealitateak ez dit utzi, Barricada parafraseatuz: egunerokotasunakin bai ez dago[ela] tregoarik. Edo, hain



Mikel Olaizola

RRV-zaleak ez diren nire irakurleentzat beste erreferentzia bat erabiliz, kalendarioak arrastratu nau zutabe honen gaira, *efemerideak guregan zauriak direlako*, Anariren hitzetan.

Eta azaroa zerbait bada, efemeridez betetako hilabetea da. Hau irakurtzen hasi zaretenerako paseak izango ditugu gure egutegiko nazioarteko egun garrantzitsu bi: azaroko 9a bata, orotariko faxismoen kontrako nazioarteko eguna, Kristallnacht-a gogoan; eta azaroko 25a bestea, indarkeria matxistaren kontrako eguna, Mirabal ahizpak akorduan. Azaroa apur bat luzatuz atzaparrekin heltzen badiegu abenduko lehen egunei beste efemeride bat ere izango dugu eskuartean, abenduak 3koa, gure euskararen aldarikapen-data (bidenabar baita Nafarroaren eguna ere, lagunak haserretu ez dakizkidan).

“Eta azaroa zerbait bada, efemeridez betetako hilabetea da”

Askotariko taldeak batu ziren Bilbon 9an, faxismoaren gorakada salatzen; arazo estrukturalak aldaketa estrukturalak behar dituztela esan zuten 25aren atarian Elgoibarko Emakumeen Kontseilukoek; ausart ez, baizik eta libre sentitu nahi dugula oihukatu astelehenean Koordinakunde Feministakoek; eta martxan da Elgoibarko Izarraren kanpaina ere, euskarak 365 egun dituelako.

Baina ez euskarak bakarrik. Nazioarteko data politikoki egokiek eskaintzen duten abarotik harago, prentsak egun horietan jartzen digun arretatik harago, ezin ahantz dezakegu egunerokotasun arruntaren tregoa-gabezia. Pertsonon eskubideek 365 egun, emakumeon askatasunak 365 egun, hizkuntza honetan hitz egiteak 365 egun.

Ez naiz azaro zalea, Danele, badakizu, ze dekadente eta nekagarri zaidan udazken-negua (areago biharamuneko igandetan). Ai! Ni Mediterraneora eguzkipean habanerak kantatzera etorria! Baina bai zera, ihes beterik ez da. Eta hemen ere azaroa, egunerokotasun eterno bat, berunezkoa, kolpatu eta kolpatu. Indarkeria matxista, faxismoaren itzalak, euskararen zokoratzea... Eta euskal

herritik ere apenas berri onik: epaiketak, gose-grebak, kaleratzeak eta kaka gehiago.

“Nire memorian egun bat da batez ere azaroa; 20an biltzen da haren esentzia”

Nire memorian egun bat da batez ere azaroa; 20an biltzen da haren esentzia. Momia desentxufatu zutelarik batzuen kantu eta brindisak, gurasoen batallitak, eta Arias Navarro intzirika. Gero Muguruza eta Brouardena, eta berriz dena grisa, polizia otxenteroa egurrean eta mertzenarioak odol egarri. Aurten berriz beste azaroaren 20 bat, apur bat argiago gogoratzekoa.

la nola esaten dudan orain hau, esan gabe. Nola ulertarazi esplizitu izan gabe, Urkijo eta bere zaldun elgoibartarra kixotesko jarri ez daitezten. Ze noski, desberdina da *Diario Vasco*-ko diktadoreen eskela edo Del Olmo BARRENEKO atarian.

Ba hori, amak deitu zidala negarrez: akabo Bonxe, Dueñas, Herrera; epeltzen omen duela tarteka. la auto batek harrapatu ninduen bizikletan, baina poz galanta bizkar hezurrean behera. *Que veinte años no es nada...* kantatzen du Gardelek, hogeita zortzi asko dira, ordea, eta geratzen zaidan lekua gutxi. Lubaki horretan izan dugu etxea: bakoitzak ditu bere minak, sakonago ez nuke jardun nahi gaur.


Freskatzen daukat cava botila, aparretan bizi nahi dut azaroa une batez. Hurbildu, eta hartu dezagun trago bat, egin dezagun topa, Danele! Merezi dutenen alde! Gure alde!

ELGOIBARKO MERKATARIONTZAKO OHARRA: LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak TONBOLA jarriko du abenduaren 24an Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean, BARRENEan eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri.

Erregalu bat emateko prest zaudetenok, deitu (943 74 16 26) edo idatzi Elgoibarko Izarrara (elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) abenduaren 13a baino lehen.

Eskerrik asko!



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunizun.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Amedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
bizitzeko



MENDAKAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunizun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Asier Makazagari

Nun zagoz, baiña, Asier, nora juan zara, holan, beste barik?

Esaiguzu,

esaiguzu zeinekin jarduten dozun hor, beste alde horretan...

Kontaiguzu,

kontaiguzu ia zer kolore dakan leku horrek...

Barre eitten dozu?

Eta azalduiguzu,

azalduiguzu inguratzen zaituan musikia zelakua dan...

Tarareatzen diharduzu?

Bai, badakigu ez zarala urrin juan,

hemen sentiduko zaitugula

kale-kantoi ertzetatik zelatan,

eguneko argi-kolorietan pausatuta

barrezka;

iluntzeko haixiak laztantzen gaittuanian

berbetan

eta

koloriak berdintzen diran unian

kanturen bat abestuko dogu

alkarrekin

Beinkel!

Maitte zaittugu.

Elgoibarko zure kuadrilla ☺

Eskerrik asko

Asier Makazagari familiak eta lagunek eskerrak eman nahi dizkizute laguntzen egon zareten guztioi: Euskal Jaureritza Segurtasun Sailari, DYARI, Gurutze Gorriari, SOS Deiak-i, Zubirondo elkarteari, Eizagirre okindegiari, Elgoibarko Udaltzaingoari eta laguntzera hurbildu zareten guztioi. Mila esker denoi, zuen laguntzagatik.

Familia eta lagunak ☺

Bide gorriak

Aurreko ostegunean, hilak 14, Martin Garitanok Elgoibarrera eginiko bisita aprobetxatuz, bidegorrien inguruan galdera egin zion gutako batek: ea noren eskuduntza den bidegorriak egitea, zeintzuk eta noizko egitea dauden aurreikusita.

Herri gunetik kanpo dauden lanak Diputazioaren betebeharrak direla erantzun ziguten, eta diseinatua egon arren, gutxienez bi urte zain egon beharko gara Altzola edo Eibar-Soraluzera, jbidegorritik joateko. Notizia txarra, 700 egunez gu-

re bizitza arriskuan jartzen jarraitu beharko dugulako.

Larunbatean, berriz, Diario Vasco-ren bidez jakin genuen Elgoibarko alkatearen iritzia. Bertan irakurri dugu diseinatua dagoenaren ordez, Leiruntxiki eta autopista sarrera lotzeko asmoa dela.

Txirindan lanera joaten garenek bidea diseinatu dutenekin bat gatoz, eta ez Udalaren asmoekin, Ibaite poligonorako, San Antolin kaleko enpresetarako (Kondia, Etxe-Tar, Unceta, Sariki eta abar) ez duelako sarbiderik ematen, eta Arriaga poligonorako ere ez delako bide egokiena. Irtenbiderik merke eta egokiena bidegorria trenaren Melitongo tunel zaharretik egitea izango litzaiteke gure ustez, diseinatuta dagoena hain justu. Udalarik dagokion herri barruko bideetan ere, ez dugu ikusi bizikletentzat segurtasuna bermatzeko neurririk.

Horregatik, erabiltzaileok prest gaude administrazioekin kolaboratzeko, gure iritzia eman eta behar denean laguntzeko. Diru gutxi dagoela jakitun garenez, bidegorriak auzolanean egiten laguntzeko prest ere egongo ginateke.

Xirrinlan taldearen izenena ☺

Karakate

Zer gertatzen ari da Karakaten azken urteetan? Nire ustez, hara joaten diren askorentzat mendia baino entrenamendu eta norgehiagoka tokia da Karakate. Eta helburu garbia dute horiek, gero eta azkarrago igo, gero eta azkarrago jaitsi. Nik ez dut nahi mendiarekin duten harreman hori normalizatzea. Gizartearen erakusgarri dela diote batzuek. Eta? Horregatik ontzat eman behar al dugu?

Aurtengo igoeran errekorra hautsi da. Helburua lortu da. Soka batzuk erabili omen dira bidea laburtu ahal izateko. Norbaitek pentsatuko du helburuak hori eta gehiago merezi duela. Datorren urtean soka horiek ez dira abantaila izango eta beste zerbait asmatu beharko da. Zer ote da hurrengoa? Non dago muga? Ba al dago mugarik? Helburua da aldatu beharrekoa. Hor dago koska.

Ez al dugu nahiko lehiakortasun gure egunerokoan? Zergatik eraman lehia mendira? Nik beselako harremana nahiko nuke Karakaterekin.

Mikel Osoro ☺



I. URTEURRENA

ANTONIA ELUSTONDO ETXANIZ

"Upaitza-Goiko"

2012ko azaroaren 27an hil zen, 83 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

VALENTIN CHURRUGA ARRIZABALAGA

2013ko azaroaren 26an hil zen, 71 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

MANUELA AZPEITIA EGAÑA

2013ko azaroaren 24an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

KONTXITA ARMENDIA IZAGUIRRE

2013ko azaroaren 25ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

BITTOR ARRIETA ETXANIZ

*Alaitasunaren iturritik
edan genuen elkarrekin
oroimenean izango zara
zu beti gurekin.*

2012ko azaroaren 28an hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.

Azken zapatuko feriak eta kontsumo arduratsuaren azokak bat egingo dute bihar

Ohiko ekintzez gain, bigarren eskuko produktuak jarriko dituzte salgai Lekuederren

Bi feria batean antolatu dituzte biharko; hileroko nekazaritza feriaz gain, kontsumo arduratsuaren azoka ere bihar izango delako. Elgoibarko Udalak laugarren urtez antolatu du kontsumo iraunkorrari eta arduratsuari buruzko feria, herriko ikastetxeekin eta hainbat elkarterekin batera, eta 10:00etatik 14:00etara bitartean hainbat ekintza egingo dituzte Lekuederren. Besteak beste, BH Institutuko, Herri Eskolako eta Ikastolako ikasleek bigarren eskuko produktuak jarriko dituzte salgai: liburuak, jostailuak, imitaziozko bitxiak, apaingarriak...

Parrokiako misio taldeak eta Miski Gobernu Kanpoko Era-kundeak ere parte hartuko dute azokan, bidezko merkataritzako produktuak eta Peruko bizilagunek eginiko artisaunak salduz.

Era berean, *Elgoibar Berdea* kanpainaren barruan atera zizuten poltsa berde berrerabilgarriak erosteko aukera izango dute herritarrek, eta etxeko txikienentzat aldiz, argizarizko kandelak egiteko tailerra egongo da. Azkenik, birziklatzeari buruzko tailerak ere eskainiko dituzte.

Horri guztiari, nekazaritza eta abeltzaintza feriak ekintzak gehitu behar zaizkio. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta Aita Agirre plazan, aldiz, ganadu feria egingo dute. 11:00etatik aurrera Lagun Taldeak Elgoibarko harategietako produktuekin prestatutako pintxoak salduko ditu txosnan, eta 12:00etatik aurrera, Kale Kantariak irtengo dira kaleak kantuz alaitzera.

Hilda topatu zuten zapatuan martitzenetik falta zen Asier Makazaga

Azaroaren 19tik falta zuten etxean Asier Makazaga 49 urteko elgoibartarra, eta barixakuan jakin genuen senideek salaketa jarria zutela Ertzaintzan. Berehala bilaketa protokoloa ezarri zuten Jaurlearitza larraldietarako zerbitzuek, eta besteak beste Ertzaintzaren mendiko erreskate taldekoak, urpekariak, eta Gurutze Gorriko eta DYako lagunek parte hartu zuten bilaketetan, hainbat herritarrekin batera. Zapatuan bertan, goizean goiz abiatu ziren haren bila senide eta lagunak, eta 16:30ak aldera aurkitu zuten, hilda. Arriaga auzoan, Rodisa pare inguru horretan, topatu zuten hilotza, Deba ibaian.

Genero indarkeria salatu eta indarkeriaren kontrako kultura lantzeko beharra aldarrikatu zuten astelehenean

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen astelehena, gogoe-tarako eta mobilizazioe-tarako eguna. Elgoibarraren ere, dozenaka lagun elkartu ziren Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deitutako elkarretaratze-ra. Genero indarkeria salatu eta parekidetasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako kultura lantzeko beharra aldarrikatu zuten.



Aisialdia **Atxutxiamaikaren neguko txokoak**



Negua ere ematen du gozamenerako tarterik. Elgoibarko Izarraren Atxutxiamai-ka aisialdi taldeak urtero antolatu ohi dituen neguko txokoak dira horren erakusgarri. Astelehenean zabaldu zuten neguko txokoetan izena emateko epea, eta bihar zortzi-ara arte egongo da horretarako aukera. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako umeentzako egitasmoa da, eta izen emateagatik 45 euro ordaindu behar dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek: 40 euro). Abenduaren 23an, 26an, 27an, 30ean, 31n eta urtarrilaren 2an eta 3an izango dira txokoak.

Interesatuak bi aukera dituzte izena emateko: Internetez (www.elgoibarkoizarra.com), edota Elgoibarko Izarraren bulegora bertara joanda. Bulegoko ordutegia: asteleheneetik barixakura, 8:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Barixaku arratsaldetan itxita.

Izenak **Gipuzkoako espediente onenak**

Espediente onena duten ikasle gipuzkoarrei ikasketa amaierako sariak banatu zizkien Kutxak azaroaren 18an. Guztira, 59 ikasle saritu dituzte aurten, tartean Garazi Konde eta Eneko Etxaniz elgoibartarrak eta Mirari Egaña mendararra. 2012-2013 ikasturtean unibertsitate-ikasketak bukatzean, karrerako espediente akademikorik onenak lortu dituzten ikasleak saritzen ditu Kutxak. Mirari Egaña mendarorak Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza Gradua ikasi du Mondrago Unibertsitateko Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan. Garazi Kondek, berri, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua ikasi du Oñatiko Enpresagintza Fakultatean eta Ingeniaritza Zibileko Gradua ikasi du Eneko Etxanizek Euskal Herriko Unibertsitate Eskola Politeknikoan



Eneko Etxaniz, Mirari Egaña eta Garazi Konde.

Udal aurrekontuei buruzko ekarpenak jasoko ditu EHBilduk abenduan

Elgoibarko Udal aurrekontuen gaineko irakurketa egingo du EH-Bilduk abenduaren 12an, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etan. Bileraz gain, gizarte eragileen eta norbanakoen proposamenak eta ideiak jaso nahi dituzte. Abenduaren 12ko saioan horretarako aukera ere egongo da, baina bileraz aparte, abenduaren 2tik 11raino, asteleheneetik eguenera, udaletxean duten lokalean egongo dira, 19:00etatik 20:00etara, herritarren ekarpenak jasotzeko.

Violettaren kontzerturako autobusak, Elgoibartik

Violettak abenduaren 5ean Bilboko Miribilla emango duen kontzerturako autobusak 17:00etan irtingo dira Elgoibartik, Guass zegoen lekuko aparkalekutik.

Piropo erotikoen lehiaketako saridunak

Elgoibar erotikoa egitasmoaren barruan piropo lehiaketa ere antolatu zuten tabernariak, eta euskarazko piropo onenari zegokion saria Zestoara joan da. Gorka izeneko mutil bat izan da saritua, eta piropo irabazlea hauxe: "Zure izena ez da Google izango? Bilatzen dudan guztia zuk daukazu". Gaztelaniazko piropo onena Leire izeneko elgoibartar batena da. "*¡Guapo!, te cambio tres Navidades por una noche buena*". Guztira, 300 bat piropo batu zituzten, horietatik ehun inguru euskarazkoak eta gaineko guztiak gaztelaniazkoak.

Informazio mahaiak jarriko dituzte hiesaren egunean

Hiesaren Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 1ean, eta horren harira, gaixotasunari buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte Gurutze Gorriak eta Ongizate Sailak. Kalebarraren plazan egongo dira 11:00etatik 13:30era eta 17:30etik 19:30era.

Noiznahi eta nonahi euskaraz



Herri mugimenduak aurre hartu du beste behin ere. Aurten elkarlanean antolatuko dute Euskararen Eguna herriko hainbat eragilek eta norbanakok. Urte osoan euskaraz bizi nahi duten lagunak batu dira, eta 'Euskarak 365 egun' le-mapean horixe aldarrikatu nahi dute: euskara ez dela egun bakarreko kontua.

Ainhoa Andonegi

uskaltzaleon Topaguneak jarri du martxan *Euskarak 365 egun* kanpaina, eta herri bakoitzeko euskara elkarteei eman die bakoitzak berean hori lantzeko ardura. Elgoibarko Izarrak hartu zuen beraz, Topagunearen lekukoa Elgoibarren, eta Kontseiluko kide diren Elgoibarko erakundeekin (AEK, Udal Euskaltegia, Ikastola, Institutua eta Elgoibarko Izarra) elkartu ziren, Euskararen Nazioarteko Eguna modu berezian ospatzeko. Hasieratik ikusi zuten argi euskara ez dela lau katuren kontua, eta herrian euskara biziberritzeko eta sustatzeko lan horretan beste eragile askok ere badutela euren egitekoa. Indibualismotik taldera egin dute jauzia, indarrak batu eta abenduaren 3a elkarlanean antolatu dute estreinako. Lehenengo batzarrean hamar lagun batu ziren, eta bigarrenorako hogeitaziren. "Oso pozik" agertu dira eragileak, euskararen bueltan osatu duten taldearekin. Abenduaren 3an etapa berri bat hasiko dela uste dute Elgoibarko Izarrako eragileek, hori izango dela abiapuntua, eta hortik aurrera euskararen normalizazioan lan egingo duen herri mugimendua martxan jarzea gustatuko litzaieke.

365 egun

1949an Eusko Ikaskuntzak abenduaren 3a izendatu zuen Euskararen Nazioarteko Eguna, baina aurtengo kanpainen Euskarak 365 egun dituela aldarrikatu nahi dute. 365 egun euskaraz bizitzeko, os-

patzeko, plazaratzeko, hitz egiteko. Euskaraz bizi nahi dutenentzat oso garrantzitsua da abenduaren 3a, baina hurrengo egunak, asteak eta hilabeteak ere garrantzitsuak dira, urte osoan euskaraz bizi nahi dutelako. Euskaraz bizitzeko baldintzak sortu nahi dituzte, euskal kulturaz gozatzeko guneak, euskarazko hedabideak, aisialdi guneak edota bestelako euskal erakundeak sustatuz. Azken batean, euskal hiztunen komunitatea sortzeko lanean ari dira, herritarrekin eta herriarentzat.

Kartelak eta mosaikoa

Euskal Herriko herrietako hormetan jartzeko 50.000 kartel atera dituzte, eta Elgoibarren ere banatu dira kartel horiek, BARREN astekariarekin. Kartel horiek etxeko atarian, leihoan, dendan, tabernan, eskolan, bulegoan, lantokian... edonon jartzeko eskatu dute, auzoa, herria, eskualdea, eta Euskal Herria *euskarak 365 egun* mezuarekin josteko.

Bestalde, Euskarak 365 egun kartelarekin norbanakoek ateratako argazkiak bildu nahi dituzte, mosaiko erraldoi bat osatzeko. Taldeko kideek atera dituzte argazkiak dagoeneko, baina ahalik eta herritar gehienek argazkiak batu nahi dituzte. Erretratuak norberak atera ditzake, eta komunikazioa@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Horrez gain, bihar, azken zapatuko ferian mahai bat jarriko dute argazkiak ateratzeko.



Euskara ez delako egun bateko kontua

DanobatGroup: Euskararen Eguna sorpresaz beterik

DanobatTaldean berebiziko garrantzia dauka euskarak, eta beti erakutsi dute euskarekiko konpromiso argia. DanobatGroup hainbat kooperatibaz osatuta dago, eta guztietan dituzte euskara planak. 2000. urtean sortu zuten lehenengo batzordea Danobaten, eta kooperatiben arteko berri izateko, DanobatGroupeko batzordea sortu zuten 2005 inguruan. Eta euskara planak martxan daudenetik, Euskararen Eguna ospatzen dute abenduaren 3an. Langileentzako hainbat ekitaldi antolatzen dituzte urtero. Gehienak enpresa barruan egin ohi izan dituzte, baina kalera ere atera izan dute euskara, eta enpresako ateetatik kanpo ere ospatu izan dute Euskararen Eguna. Eta aurten ere ez dute hutsik egingo abenduaren 3ko hitzorduan. Langileen artean 365 zenbakidun txapak banatuko dituzte, trikipoteo eta afaria egingo dituzte, euskararen manifestuari atxikimendua eman eta enpresako webgunean jarriko dute ikusgai. Antolatzaleek sorpresak iragarri dituzte Euskararen Egunerako.

Zazpi puntu nagusi batzen dituen manifestua idatzi du euskararen eguneko lantaldeak, eta idazteaz gain, Elgoibarren bizi diren beste bederatzi hizkuntzatarara itzuli dute. Gure herrian euskaraz ez dakien jendea ere badagoelako, eta horiek ere gure berri izateko, momentuz, gaztelaniaz, katalanez, galizieraz, italieraz, bereberrez, errumanieraz, ingelesez, arabieraz eta nederlandera irakur daiteke testua.

Manifestuko zazpi puntu nagusiak dituzue labur-labur, segidan:

1. Abenduaren 3a egun pozgarria dela, pozgarria eta ospatzekoa.
2. Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta ondorioz, euskaldunon etorkizuna euskarari lotuta ikusten dugu.
3. Gaur Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, baina guretzat atzokoa ere euskararen eguna izan zen, eta bihar-

koa ere izango da.

4. Gaurkoa konpromisorako eguna ere bada.
5. Konpromiso pertsonalak izango dira batzuk, eta kolektiboak besteak.
6. Manifestua sinatzen dugunontzat Elgoibar euskalduntzeko erronka altxor preziatua da.
7. Etorkizunean ere, orain arte bezala, euskaldunok hamaika komunitate eta hizkuntza izango ditugu inguruan.

Atxikimenduak

Manifestuari atxikimendua emateko mahaia jarriko dute bihar goizean Nafarroa plazan. Bestalde, Pitzintxun, jubilatuen biltokian, liburutegian eta eskoletan ere ari dira atxikimenduak jasotzen. Horrez gain, www.elgoibarkoizarra.com webgunean ere eman daiteke atxikimendua.

EGITARAUA

Euskararen egunerako ospakizun ekitaldi xumea antolatu du Elgoibarko lantaldeak. Orain arte ikastetxeetan eta hainbat enpresetan ospatzen zuten euskararen eguna, baina aurten, horiek guztiak alde batera utzi gabe, kalera irtengo dira denak batera, euskararen eguna ospatzera, ospatu egin behar dela uste dutelako. Euskararen eguna elkarrekin ospatzeko gonbitea egin diete herritarrei, euskarak eta euskaldunok kaleak hartzea nahi dute, eta plaza betetzeko deia egin diete elgoibartarrei.

9:45 Dantzaldia

Herri Eskolak antolatuta, Lekuederren.

11:15 Manifestua

Herri Eskolako, Ikastolako eta Institutuko ikasleek euskararen aldeko manifestua irakurriko dute. Kalegoen plazan. Segidan argazki erraldoia aterako dute.

15:30 Mendaroko ikastolako jaialdia

Ikastolako patioan

17:00 Kiribilka

Kiribilkaren saioa, Kalegoen plazan.

17:45 Kalejira

Musika eskolako trikiti ikasleen kalejira.

18:00 Ekitaldi nagusia

Kalegoen plazan.

18:30 Kalejira

Trikitilari, txistulari, dantzari eta Kale Kantariekin.



ESKERTZA

ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



*Berriro itzuliko balitz
iragana gure artera
mugiko nuke mundua
egon gaitazan batera
baina patuak tamalez
ez daki egiten atzera
eta zu bidali zaitu
gugandik abiatzera.*

*Bihotz oneko pertsona
oso maitatua bera
kirolzale, irakasle
Amorebietako "fiera"
familia eta lagunak
ez goaz zu ahaztera
gure aita eta senarra
beti izango zera.*

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



*Garraztasuna da agertzen
sarritan gure alboan
bizitza garratza zaigu
arantzaz inguratua
Kilkerraren pozaren zai gaudela
elur bustia, gure negarrak eta saminak
urrun direla.
Kanta garratz mikatza
haizeak daramana
noiz aldenduko zara.*

*Mireyaren bidaiko lagunak:
Lurdes, Juli, Mariaje, Urra, Nerea, Lore, eta Jaione*



ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



*Zuk diozun bezala, hau ez da gertatzen ari.
"Esto no está pasando".
Maite zaitugu.
Besarkada bat.*

Elgoibarko zure koadrila.



ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA

*Nahi adina momentutxo izan ditugu.
Bideak elkar gurutzatzerakoan,
mendiak aldamenean sufritzerakoan,
zubiak elkarrekin kontatzerakoan,
bizitzaren pasadizoak gozatzerakoan.
Momentutxoak, orain eta beti, gurekin.*

Gasteizko Jariguay taldeko lagunak



ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



*Udazkeneko egun euritsu
eta goibel batean
utzi gaituzu, lagun maitea
guztiak ustekabean
Alaia eta leiala zinen
etxean (e)ta lagun artean
preziatua (e)ta trebea
eskolan eta kirolean
Gurekin eramango zaitugu
Bihotzaren barrenean.*

Zure lagunak



ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



“Beti izango haiz gure gogoan”

Kimetz Elkarteko bazkide lagunak



Eskertzak eta urteurrenak

DENA GERTU KONTZESIO AZOKARAKO

Abenduaren 8a, Kontzesio eguna, berezia da Mendaron, eta bereziagoa ere izan zen garai batean, zenbaitzuren araberan. XX. mendean zehar dantzak izan ziren egun horretako osagai nagusiak, eta gaur, egun horren bueltan antolatu ohi den azoka da egitarauko ekitaldi bereziena. Bihar zortzi izango da hori, abenduaren 7an. Eguna, baina, musikaz, herri-kirol saioez eta dantza erakustaldiz jantzita etorriko da, ohi legez.

Ainara Argoitia

Ez da aspertzeko astirik izango bihar zortzi Mendaron. Goizean goiz, 9:30ak aldera, zabalduko dute baserriko produktuen azoka Goñati pilotalekuan, eta azoka zabalzearekin batera hasiko dute eguna mendaroar askok. Ohitura bihurtu den legez, sasoiaren sasoiko produkturik onenak dastatu eta erosteko aukera izango da azokan, eta era berean, inguruko baserrietako animaliak ikusi eta tratuak ixteko aukera ere izango da, Herriko Enparantza atzeko plazan. Joan zen astearterako, azokan hamabi postu egongo zirela konfirmatua zuen Debemeneke: Andikonagoitia, Atxitxe, Baskaran eta Arizaga baserrikoek eta Jose Lonbide ekoizleak barazkiak ekarriko dituzte azokara, Mutrikuko Goienetxe baserrikoek eta Maria Luisa Petralandak gazta salduko dute, eta Atxuri eta Malax baserrikoek eta Teresa Petralandak ogia, euskal pastelak, fruitu lehorrak eta goxoak (menbriloa, mermeladak) ekarriko dituzte. Ganadu azokan, berriz, sei etxaldetako abereak izango dira: Lizantzu, Sarube, Garate, Etxabe, Agarre-Txiki eta Asier Rubio.

Ez dira horiek izango, baina, zapatuan izango diren postu guztiak. Plaza bueltan eta udaletxearen aurreko aldean nahiz atzeko aldean, beste haimaika postu jarriko dituzte. Burdingegiko tresneria, hestebeteak, berakatzak, krema terapeutikoak, kontsorbak, sendabelarrak, otarrak eta lore lehorrak, pateak, txotxongiloak, panpinak... ez da ezer faltako. Gipuzkoako ikastolek ere jarriko dute mahai bat datorren urteko urrian Orion egingo duten jairako atera duten materiala saltzeko.

11:00etan sagardo lehiaketa hasiko da. Guztira, zortzi sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera izango da, baina lerro hauek idazteko unean, zehaztu gabe zuten zeintzuk izango ziren etorriko ziren sagardo ekoizleak. Ordu bete beranduago irtengo dira Mendaroko trikitixa dantza taldekoak kalejiran. Azpilgoetan hasiko dute ibilia, eta Herriko Enparantzara iritsitakoan, dantza saioa eskainiko dute. Urtean zehar dantza eskolan ikasitakoa jende aurrean erakusteko aukera izango dute, ume, gazte nahiz helduek. Ordurako, eta eguraldiak laguntzen baldin badu behintzat,



jendetza handia ibiliko da plazan, eta hala nahi dutenek Izeta herri-jasotzailearen idi pareak tiratutako gurdian ibiltzeko aukera izango dute.

Herri kirol saioak

13:30erako erronka ikusgarria antolatu dute. Jon Larrañaga (Mendaro, 1982) eta Juan Carlos Diez Soto (Ormaiztegi, 1968) lehiatuko dira. Juan Carlos Diez Soto munduko txapelduna da ipurdiarekin intxaurrek apurtzen, eta hain justu ere, horixe izango du egin beharreko lana: ipurdiarekin 200 intxaurrek apurtzea. Larrañagak, berriz, lokotx batzen jardungo du. 50 lokotx bildu beharko



Mendaroko giza probetako taldea ezkerrean, eta Manu Maritxalar '101 Gaztelu' saioko lehiakidea, eskuinean.



Imanol Gonzalez eta Oibar Artetxe '101 Gaztelu'-ko lehiakideak.

ditu, eta bere lana azkar bukatzen duenak irabaziko du desafioa.

Arratsaldean, giza proben ordua izango da. Gizonezkoetan, Itziaroko, Orioko eta Mendaroko taldeak lehiatuko dira. Hogeina minutuko saioak egingo dituzte, 800 kiloko hariarekin. Bitxikeria, baina, emakumezkoen saioan egongo da. Sonia Archeli eta Nerea Arrizabalaga baja dira, eta Oihana Lopezek tiratuko duen zalantzan dago. Nolahani ere, prest dituzte ordezkioak. Manu Maritxalar 101 Gaztelu telebista saioko Bilauen taldeko kapitainak eta saio bereko bi lehiakidek, Oibar Artetxe 22 urteko galdakaoztarrak eta Imanol Gonzalez 34 urteko emuarrak, tiratuko dute haien ordezkioak.

Eguberrietako ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Debabarrenako gartzetxoentzako lehiaketa da berez, eta interesatuak abenduaren 9a arteko epea dute lanak aurkezteko. Hiru sail izango dira: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek gutxienez orrialde bat eta gehienez bi orrialdeko lanak aurkeztu beharko dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek, berriz, gutxienez bi orrialde eta gehienez lau orrialdetako lanak egin beharko dituzte, eta azkenik, gutxienez lau eta gehienez sei orrialdetako idazlanak aurkeztu beharko dituzte D.B.Hko 3. mailatik aurrerako ikasleek. Irabazleak eta bigarren lan onenek MP4 eta MP5 irakurgailuak jasoko dituzte, txikien mailetan. Nagusietan, aldiz, 200 euro jasoko ditu irabazleak, 100 euro bigarrenak eta 50 euroekin sarituko dute herriko idazlan onena.

Lan guztiak Mendaroko Udalean entregatu behar dira edota postaz bidali honako helbide honetara: Mendaroko Udala (Kultura Saila), Herriko Enparantza, 1. zkia, 20850 Mendaro. Sari banaketa abenduaren 24an egingo dute, eguerdian, Mendaroko frontoian. Argazkian iazko irabazleak ageri dira.



KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDYAK 7









UDAL AURREKONTUAK 2014 MENDARO

Mendaroko Udal aurrekontua 2013koa baino %1,75 handiagoa da: 2.209.200 eurokoa

Datorren urteko Mendaroko Udal Aurrekontua 2.209.200 eurokoa izango da, iaz baino %1,75 handiagoa. Sailka aztertuta, Zerbitzu Sailak jasoko du diru gehien: 545.500 euro hain justu ere (aurrekontuaren %25). Gizartegintzarako izango da aurrekontuaren %17. Iaz, 382.600 jaso zituen Gizartegintza Sailak, eta 2014an: 382.100. Kulturarako 319.200 euro gorde dituzte (%14), iaz baino 13.200 euro gehiago, eta zerbitzuarentako 545.500 euro, iaz baino 81.100 gehiago. Nekazaritzarako, bestalde, aurrekontu osoaren %2a gorde dute; dirutan, iaz beste: 44.600. Joan zen astean onartu zituzten udal aurrekontuak, EHBilduren botoekin. EAJko hiru zinegotziek kontra bozkatu zuten, eta PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen.

2014ko aurrekontua, sailka

- **ADMINISTRAZIOA:** 229.700 (%10)
- **ZERBITZUAK:** 545.500 (%25)
- **KULTURA:** 319.200 (%14)
- **GIZARTEGINTZA:** 382.100 (%17)
- **NEKAZARITZA:** 44.600 (%2)



AURREKONTUAK

Inbertsioentzako 156.500 euro gorde dituzte. Honako hauek izango dira inbertsio handienak.

- **IRISGARRITASUN OBRAK:** 20.000
- **AZPILGOETAKO JOLAS PARKEA:** 15.000
- **ARGITERIA PUBLIKOAREN ERAGINKORTASUNA ZAINTEKO PROIEKTUA.** 75.000
- **LANDA GUNEAN EGIN BEHARREKO INBERTSIOAK:** 20.000

OHARRA: Aurrekontuetan inbertsioen atalean agertu ez arren, bada aipatzea merezi duen beste obrarik ere. Frontoian hainbat lan egin nahi dituzte. Batetik, frontisaren berezko itxura berreskuratu nahi dute. Harritzkoa da frontisa, baina bere garaian, zuriz margotu zuten pilota partida bat telebistaz eman ahal izateko. Harri hori bistaratu eta ezker horma grisez margotu nahi dute. Bestetik, teilatu-hegalean ere hainbat konponketa egin nahi dituzte, itokinak kentzeko, eta gasa sartu nahi dute aldageletaraino. Gaur egun, ur berogailu termo-elektrikoa dago frontoian. Obra horiek diruzaintzako 2013ko diru gerakinarekin egingo dira.

SARREREN AURREKONTUA

Zuzeneko zergak	457.200
Zeharkako zergak	20.000
Tasak eta bestelako sarrerak	253.100
Transferentzia arruntak	1.418.900
Ondare sarrerak	23.000
Inbertsio errealean inorenganaketa	6.000
Kapital transferentziak	31.000

Sarrerak guztira **2.209.200**

GASTUEN AURREKONTUA

Langileen ordainsaria	539.100
Ondasun arrunten eta zerbitzu erosk.	1.266.850
Finantza gastuak	5.000
Transferentzia arruntak	93.750
Inbertsio errealak	156.500
Finantza pasiboak	148.000

Gastuak guztira **2.209.200**

Iban Murua elgoibartarrak irabazi du Alkortako Igoera

Hogeita bost lagunek parte hartu zuten guztira

Karakateko Igoeran eman zuen abisua Iban Murua elgoibartarrak. Laugarren sailkatu zen Karakaten, 30:17ko denborarekin, eta sasoi-ko zegoela berretsi zuen zapatuan, Alkortako Igoeran. 21:47ko denboran osatu zuen ibilbidea Muruak. Iñaki Pelayo mendaroarra sailkatu zen bigarren, Muruarengandik 26 segundora, eta Eder Rodriguez galdakaoztarrak egin zuen hirugaren, 22:42ko denborarekin. Hogeita bost lagunek parte hartu zuten guztira, eta jendetza handia batu zen Alkortarako maldetan, korrikalariak animatzera. Berezia izan zen, gainera, aurtengoa. Parot doktrinaren kontra antolatu ohi dute lasterketa hau, eta eguaztenean libre laga zuten Jokin Urain presoaren jaiotetxean bukatzen da. Aurten, helmugan bertan zen Urain bera ere, 27 urte preso egin ostean. Argazki gehiago: www.elgoibARREN.net



Xabier Bergaretxe izan da gure ordezkari azkarrena Donostiako maratoian

Elgoibarko eta Mendaroko 21 lagunek parte hartu zuten



Eszerreko argazkian, Xabier Bergaretxe elgoibartarra Anoetako estadiora iristen, eta eskubikoan, Aritz Ruiz de la Torre eta Alonso Gomez mendaroarrak.

Sailkapena

Xabier Bergaretxe	2:37:26
Aritz Ruiz de la Torre	2:40:23
Alonso Gomez	2:40:25
Jon Larrañaga	2:52:51
Miguel Angel Montes	3:12:03
Iñigo Iturbe	3:12:08
Ibon Serrano	3:14:40
Fernando Calvo	3:15:32
Iker Amutxastegi	3:16:27
Julen Azpiazu	3:21:40
Aritz Olaso	3:25:21
Pedro Iparragirre	3:33:32
Imanol Esnaola	3:57:50
Asier Arrieta	3:54:09
Javier Hernando	3:54:31
Itziar Gurrutxaga	4:00:17
Miguel Castro	4:07:15

Domekan jokatu zen Donostiako maratoia, eta Elgoibartik eta Mendarotik 21 lagunek parte hartu zuten. Horietatik hamazazpik bukatu zuten 42 kilometroko ibilbidea. Guztien artean, Xabier Bergaretxe elgoibartarrak egin zuen denborarik onena: 2:37:26. Haren atzetik, mendaroar bi sartu ziren: Aritz Ruiz de la Torre eta Alonso Gomez. Bi elgoibartarrek eta beste bi mendaroarrak proba laga behar izan zuten, arrazoi ezberdinak tarteko: Elias Fernandez, Gorka de la Horra, Iker Maiora eta Gotzon Zulaika.

Alcobendaseko krosean parte hartu dute Mintxetako 35 korrikalarik

Alcobendaseko (Madril, Espainia) atletismo taldeak gonbidatuta, Espainiako Konstituzioaren Nazioarteko krosean parte hartu zuten joan zen domekan Mintxeta Atletismo Taldeko 35 korrikalarik.

Mugertza krosean korrika egitera etortzen direnetan jasotzen duten tratu onaren esker onez gonbidatu zituzten Alcobendaseko CAP taldekoek elgoibartarrak. Kirola eta aisialdia uztartu dituzte asteburu biribilean eta, gainera, Martin Hernandezek infantil kategoriako proba irabazi zuen. Korrikalari eta laguntzaile, 55 laguneko talde bat joan zen Elgoibartik Madrilerara.




Kirol arloko Berdintasun Sariak antolatu ditu Elgoibarko Udalak

Bi sari izango dira: bakarkakoa eta taldekoa

Kirolean emakumeen partaidetza eta berdintasuna bultzatzeko bi ekimen antolatu dituzte Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta Kirol Patronatuak elkarlanean. Batetik, abenduaren 18rako mahai-inguru bat antolatu dute, emakumea eta kirola gai hartuta. Ainhora Azurmendik gidatuko du mahai-ingurua. Bestetik, kirol arloko Berdintasun Sariak ere antolatu dituzte. Sari bi izango dira, biak ere 500 eurokoak: taldekoa eta bakarkakoa. Udalak jakinarazi du abenduaren 5a arteko epea dagoela hautagaiak aurkezteko eta sari banaketa ekitaldia abenduaren 14an izango dela, kiroldegian, Euskadiko senior emakumezkoek eta Txileko selekziokoek jokatu duten eskubaloi partidaren aurretik. Informazio gehiago: www.elgoibar.org.

Hiru domina Egokran taldekoentzat

Egokran taldekoek hiru domina eskuratu zituzten Hernanin. Sarai Sanchezek urrea lortu zuen 40 kiloz azpikoetan, Naroa Plazak zilarra 52 kiloz azpikoetan eta Egoitz Mora irakasleak urrea, Gipuzkoako seniorren txapelketan



Sanlok neguko egitaraua aurkeztu du

Benjamin mailako neska-mutilentzat hainbat ekintza antolatu ditu Sanlok neguko oporraldirako. Abenduaren 6an, Alcorta Forging Group taldeko entrenatzaile Gojko Vucinek eta Juanma Lopez Gabaz taldeko entrenatzaileek entrenatuko dituzte gazteak. Abenduaren 30ean, berriz, 11:00etatik 12:30ak bitartean, Jorge Dueñas nesken Espainiako selekzioko entrenatzailea etorriko da eskubaloi eskolara. 31n, berriz, Imanol Alvarez Bera Bera eskubaloi taldeko entrenatzailea eta nesken Euskadiko selekzioko entrenatzailea etorriko da kiroldegira. Urtarrilaren 2an, bestalde, Bilboko PINa bisitatuko dute, eta biharamonerako, Unai Arrieta, Sanlon hazitako Naturhouse Rioja taldeko jokalaria, gonbidatu dute Elgoibarrera. Interesatuak abenduaren 5a arteko dute izena emateko. Horretarako bi aukera daude: Internetez (sanlolatxo@gmail.com) edota bulegora agertuta, (aste barruan: 18:00etatik 19:00etara). Matrikulak 15 euro balio iditu.

Anjel Ibarluzea eta Aitziber Olaizola, Euskadiko txapelkunak hiru txirilo txapelketan



San Migel taldeko Anjel Ibarluzeak irabazi du Euskadiko hiru txirilo txapelketa gizonetakoetan, eta Aitziber Olaizola izan da onena emakumezkoetan. Aiastiako senar-emazteek beraz, neurria hartua diote txapelketari. Ibarluzeak 18 txiriloekin jantzi du txapela, eta Olaizolak, 13 txiriloekin.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 3 – Zalla 2 (3. maila)
Elgoibar 0 – Ikasberri 1 (Erreg.)
Zarautz 2 – Elgoibar 0 (Neskak)
Tolosa 2 – Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 2 – Lagun Onak 2 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Ikasberri 2 (Kad. B)
Amaiak Bat 4 – Elgoibar 1 (Inf.)
Amaiak Bat 3 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)
Elgoibar 4 – Bergara 0 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Ibarra 1 – King Kong Elg. 0 (Jub.)
Concepto Egile Elg. 5 – Sala Quinto 1 (2B)

ESKUBALOIA

Santoña 31 – Alkorta Elg. 26 (Sen. mut.)
San Adrian 20 – Lauko Elg. 27 (Sen. neska)
Tolosa 22 – Gabaz Elg. 31 (Sen. mut.)
Pulpo 23 – Astigarraga Elg. 34 (Jub. neska)
Beristain Elg. 48 – Saieko 18 (Jub. mut.)
Pulpo 18 – Tecnifuelle Elg. 29 (Kad. neska)
Pneumax Elg. 35 – Leizaran 21 (Kad. mut.)
Txarriduna Elg. 35 – Pulpo 24 (Sen. mt.)
Aloña Mendi 27 – Murgil Elg. 17 (Kad. neska)
Deca Elg. 36 – Aloña Mendi 8 (Inf. mut.)
Pulpo 20 – Ikus Elg. 15 (Inf. neska)
Aiale 7 – Aterpe Elg. 25 (Inf. neska)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
EPL 22 – Lagunak 20 (2. mailako jub.)
Gure Txeru 22 – Lagunak 9 (2. mailako kad.)
Pala
Alzatarra 25 – Lagunak 9 (2. mailako nag.)
Usurbil 25 – Lagunak 20 (2. mailako nag.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 30
10:00 Elgoibar – Amaiak Bat (Inf. Txiki)
12:00 Elgoibar – Ikasberri (Inf.)
16:30 Elgoibar – Aurrera (Jub.)
Domeka, 1
12:30 Elgoibar – Mariño (Neskak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barxakua, 29
19:30 Gabaz Elg. – Donibane (Sen.mt.)
Zapata, 30
9:45 Cometel Elg. – Aiala (Inf. neska)
11:00 Ikus Elg. – Aiala (Inf.neska)
12:30 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf.neska)
17:45 Murgil Elg. – C. Baskongadas (Kad. neska)
19:30 Alkorta Elg. – Askartza (Sen. mut.)
Domeka, 1
9:45 Tecnifuelle Elg. – Aiala (Kad. neska)
11:15 Astigarraga Elg. – Aiala (Jub. neska)

PILOTA

Barxakua, 29
21:15 Lagunak – Azkoitia (2. mailako kad.)
22:00 Lagunak – Lapke (2. mailako jub.)

NAIA MEMBRILLERA Musikaria

Gabriel Arestiren izena eta lana hedatzeko, diziplina anitzeko kultur ikuskizuna sortu dute, eta parte hartu duten musikarien artean bi elgoibartarren izenak ageri dira: Iban Urizar eta Naia Menbrillera. Urizarrek beste hainbat musikarirekin ere kolaboratu izan du aurrez, baina Menbrillerarentzat lehenengo esperientzia da honakoa. Berarekin hitz egin dugu, ekitaldiaz beraz eta musikaz. Elgoibartar gazteak Goi Mailako Musika Ikasketak egiten dihardu Musikenen, eta horrez gain, Elgoibarko eta Hernaniko musika bandetan jotzen du, eta Euskadiko Gazte Orkestrako kidea ere bada. Denbora librean duenean, baina, Elgoibarrerako bidea hartzen du, lagunekin egoteko.

“Musikaz bizi nahi dut; ez daukat dudarik”

Gabriel Arestiren omenezko ikuskizunean parte hartzen diharduzu. Nola iritsi zitaizun aukera hori?

Rafa Rueda da ikuskizunaren sortzaileetako bat, eta hark esan zion Iban Urizarri perkusionista bat behar zuela. Ibanek nire izena eman zuen, eta horrela hasi nintzen. Uztailean egin genuen debuta Bilboko Arriaga Antzokian, eta sekulakoa izan zen. Sekula egon gabe nengoen Arriagan, eta hainbeste jenderen aurrean jotea oso polita izan zen. Kritika oso onak jaso genituen, eta horrek aurrera jarraitzeko indar handia eman zigun. Etenaldi txiki bat izan dugu, eta aste honetan hasiko gara berriz emanaldiekin. Uztailean arte jarraitzeko asmoa daukagu.

Zein da zure egitekoa ikuskizunaren barruan?

Arte mota desberdinak batzen ditu ikuskizunak: musika, poesia, antzerkia, bertsolaritza... Batetik, poema musikatuak egiten ditugu, hau da, Gabriel Arestiren poemei musika jartzen diegu. Rafa Ruedak abesten ditu, eta Ibanek eta nik musika jartzen diegu. Antzerkia egiten ari direnean, bestalde, musika jartzen dugu eszena girotzeko.

Nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Niretzako sekulako aukera izan da, eta esperientzia oso ona. Oso pozik nago. Oso gustura ibiltzen naiz musikari horiekin jotzen, eta gauza asko ikasten ari naiz. Gainera kulturgingintzako jende ezagun asko ari da parte hartzen ikuskizunean, eta bakoitza bere alorrean oso jakitun da. Horiek esaten duten guztia atentzio handiz entzuten dut, eta entzutearekin bakarrik, pila bat ikasten dut. Oso jende interesgarria da. Gabriel Aresti kultura elkarteok jende ezagunak kolaboratzea nahi zuten, ikusleak erakartzeko, eta oso ondo egin dute. Gabriel Arestiren bizitza ezagutzera eman nahi dute, bere lana zabaltzeko.

Zuk ezagutzen zenuen Gabriel Aresti?

Eskolatik ezagutzen nuen apur bat, baina ez nuen inoiz bere obrarik irakurri. Ikuskizun honi esker ezagutu dut gehiago, eta erosi dut bere liburu bat. Euskara jartzen zuen gauza guztien gaitetik, eta injustizia guztien kontra borrokatzen zuen. Antzerki honekin oso ondo islatu dute Arestiren bizimodua. Nik jende guztia gonbidatu nahi dut ikuskizunera. Oso polita da, eta me-rezi du.

Noiz eta nola sartu zinen musika munduan?

Nire ama soinu-irakaslea da Elgoibarko musika eskolan, eta umetan hasi nintzen musika ikasten. Soinua ikasten hasi nintzen lehenengo amarekin, eta 14 urte bete nituenean sartu nintzen perkusio munduan. Gaur egun Musikenen nago Goi Mailako perkusio ikasketak egiten. Musikaz bizi nahi dut; ez daukat dudarik.

Entzunda dudanez, Musikenen sartzeari ez da erraza izaten.

Bi plaza bakarrik zeuden, eta hamabi hautagai ginen. Probak gogorrek dira: ordu erdiz neu bakarrik instrumentua jotzen egoteaz gain, azterketa teoriko bat ere gaititu behar da. Lan asko egin behar da, ordu asko sartu behar dira, baina lan eginez gero, emaitzak lortzen dira, eta pozik nago. Ordu asko eskaintzen dizkiot musikari.



‘Ahotsak’ proiektuan parte hartu dutenei eskerrak emango dizkiete eguenean

Ahozko ondarea jasotzeko egitasmoa da ‘Ahotsak’

Ahotsak.com egitasmoaren helburua ahozko ondarea biltzea eta digitalizatzea da, eta sortu zutenetik gaur arte, Euskal Herriko milaka grabazio jaso ditu Badihardugu euskara elkarteak, tartean Elgoibarkoak ere bai. Eguenean, abenduaren 4an, saio berezia eskainiko dute Elgoibarren, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Proiektua aurkezteko ekitaldia izango da, baina baita era berean, egitasmo honetan

parte hartu duten herritarrei eskerrak ematekoa ere.

2007. urtean batu zen Elgoibarko Udala proiektu honetara. Ordutik, 70 herritarren lekukotasuna jaso dute Badihardugukoek, eta 1.200 pasarte inguru jarri dituzte sarean, baita bideo eta audio ugari ere. Hortaz, proiektuaren berri emateko eta bertan parte hartu duten elgoibartarrei esker ona azaltzeko baliatuko du Udalak abenduaren 4ko aurkezpen ekitaldia.

Margolaritza eskolak emango ditu Monrealek

Margolaritza eskolak ematen hasiko da Gemma Monreal, martitzenetik barixakura. Ordubeteko eskolak izango dira, eta eskola guztiak arratsaldean emango ditu: 16:30etik 19:30era. San Roke kaleko 26. zenbakian daukan lokalean emango ditu klaseak. Abenduaren 1ean hasiko dira eskolak, eta berez, 9 urtez gorakoentzako prestatu ditu. Interesatuek 665 700 912 telefonra deitu dezakete.

Jaiotzen lehiaketa

Parrokiako Katekesiak jaiotza lehiaketa antolatu du, haur eta familientzako. Abenduaren 15ean izango da lehiaketa, baina partaideek hilaren 14rako utzi beharko dituzte jaiotzak Katekesiaren lokalean, 11:00etatik 12:30era bitartean. Jaiotzak 75x40 zentimetroko neurria izan dezakete gehienez. Sari banaketa hilaren 15ean bertan egingo dute, meza ondorenean.

Jostailuen erakusketa zabaldu dute Atxutxiamaikak, Ludotekak eta Gaztelekuak

Haur eta nerabeen jostailuak aukeratzeko zer hartu kontuan, zeri erreparatu? Besteak beste galdera horri erantzungo dio Atxutxiamaikak, Ludotekak eta Gaztelekuak elkarlanean antolatutako erakusketak. Haur eta nerabeen jolasteko beharra eta jolasaren funtzioak aztertzeko jostailuen erabilerari buruzko erakusketa antolatu dute. Kultur Etxeko Sotoan izango da, gaur, ikusgai, 16:30etik 19:30era. Erakusketaz gain, material birziklatuekin jostailuak sortzeko tailerra ere prestatu dute bihar goizetako. 10:00etatik 13:00etara izango da tailerra, hori ere Kultur Etxeko Sotoan, eta erakusketan bertan eman ahalko da izena, edo_atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita, bestela.

Lagunez inguratuta ospatu du Haritz Euskal Dantzari Taldeak 40. urtemuga



40. urteurrenako ekitaldiei amaiera biribila eman zien Haritz Euskal Dantzari Taldeak joan zen zapatuan, Herriko Antzokian. Sorreatik hona eurekin harreman handiena izan duten dantza taldeak gonbidatu zituzten *Haritz 40 urte* dantzan jaialdira. Eibarko Kezka eta Debako Gure-Kai taldeekin batera, Donostia, Galdakao, Portugaleta eta Iruñeko dantza taldeek parte hartu zuten. Hasiera batean Kalegoen plazan egitekoa zuten jaialdia, baina eguraldi txarragatik aterpera batu behar izan ziren azkenean. Jaialdiaren ostean, Ikastola-ko frontoian jarraitu zuen jaiak.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da lanerako: umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko... Edozertarako prest. Orduka edo interna.
☎ **678 373 716**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. Esperientziaduna.
☎ **628 524 420**
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak orduka egiteko.
☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko eta portalak garbitzeko.
☎ **686 052 084**
- Mutila eskaintzen da garajeak, elkarteak edo portalak garbitzeko. Esperientziaduna.
☎ **692 332 871**
- Frantsesa, latina eta euskarazko klaseak ematen ditut.
☎ **617 114 185**
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Edozein ordutegi.
☎ **618 814 064**

- Garbiketa edo zaintza lanak egiteko prest nago. Elgoibarren bizi naiz, eta inguruko herrietan ere lan egingo nuke.
☎ **617 043 058**
- Emakume gazte eta euskalduna, asteburuetan lan egiteko prest. Zerbitzari lanak, garbiketa lanak...
☎ **687 448 287 (Elder)**
- Klase partikularrak ematen ditut. DBHko edozein irakasgai. Merke.
☎ **676 722 556**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Haur Hezkuntzako titulua daukat. Esperientziaduna.
☎ **610 658 914 / 943 743 015**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Esperientziaduna.
☎ **690 925 929**
- Emakumea lan bila: adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan egingo nuke lan. Orduka edo interna.
☎ **642 609 678**
- Mutil arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna.
☎ **606 072 354**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest.
☎ **606 354 982**

- Neska eskaintzen da garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko.
☎ **616 457 254**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. 16m2. Irteera Txankakoako zubira. 20.900 euro.
☎ **685 707 879**
- Kartutxo taberna alokagai, gazteentzako lokal moduan. Intsonorizaturik. Altura biko biltegia, bi komun. San Frantzisko kalean.
☎ **615 177 037 (whatsapp ere bai)**

BESTELAKOAK

- Sakeleko telefono bat aurkitu nuen Herri Eskolan.
☎ **650 280 686**
- Gas estufa behar dugu, familia behartsu bati emateko.
☎ **943 740 226**
- Baltasar Pilotazale Elkarteak bazkide izan nahi dutenentzat hainbat plaza ditu. Bazkide egiteko edo informazio gehiagorako ondorengo helbidera idatzi: baltasarpilotazale@gmail.com

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Hogeita bost jabe osatutako komunitatea gara. Bilerak egiten ditugunean, etxe-jabeetako batzuk bilera hasita dagoela etortzen dira, eta ordurako eztabaidatuta eta bozkatuta dauzkagun gaiak berriro bozkatzeko eskatzen digute. Egoera horrek haserreak sortzen ditu, bilerak asko luzatzen zaizkigulako. Zein irtenbide proposatzen diguzu?

Deialdiak egiten diren aldiro bi ordu zehaztu behar dira: lehenengo deialdikoa eta bigarrenkoa, eta bien artean orduerdiko tartea egon behar da. Behin bilera hasita, administratzaileak, eta bera ez baldin bada go presidentea, bilerara agertu diren guztien edo bileran ordezkaturik dauden guztien zerranda egingo du. Beste norbait ordezkatzeko dauden kasuan, euren ordezkaturik utzitako ordezkatzeko agiria eman beharko diete administratzaileari. Gai ordenako gai bat bozkatzen denean aktan jaso beharko da etxe-jabeetako zeintzuk zeuden bileran bertan edota zeintzuk zeuden ordezkaturik.

Bozketako unean egon ez diren botoa ez da kontuan hartuko eta bilera hasita dagoela datozenean ez dute aurrez landutako gaien inguruan bozkatzeko aukerarik izango.

Gomendioa: Aktan bilera zein ordutan hasi den jaso beharko da, eta beranduago etorri diren etxe-jabeak noiz etorri diren ere jaso beharko da, jakiteko zein gairen bozketan egon diren.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ainhoa**, zurre hamaikagarren urtebetetzeagatik. Familiako guztion partez.



• Zorionak, **Eki**, atzo 2 urte bete zenituelako! Aittitta eta amamaren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Nahia**, aspaldian guk esan gabe etortzen zara Bilbotik, baina etorri nahi duzue. 13 muxu emateko desiatzen gaude. Aittitta, amama, Maite eta tio.



• Zorionak, **guapa!** Egun ederra pasa dezazula. Muxuak.



• Zorionak, **Iker**, datorren asteartean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, Iratiren partez.



• Zorionak, **Alain**, zure seigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, bereziki zure arreba Mariaren partez.



• Zorionak, **Alex**. Gaur 11 urte handi! Muxu handi bat maite zaitugun etxeko guztion partez. Pozik bizi.



• Zorionak, **Jare!** Jada 2 urteko. Muxu asko familiakoen, eta bereziki, Lierren partez.



• Zorionak, **Ane**, astelehenean 3 urteko bete zenituelako. Patxo handi bat familiakoen, eta bereziki, Maddiren partez.



• Zorionak, **Ibai**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez, bereziki Leireren partez. Aupa txapeldun!



• Zorionak **gure etxeko atezainari**, gaur urtebetetze eguna duelako. Nahiz eta kanpoan egon zure eguna ospatuko dugu. Etxekoan partez.



• Zorionak, **bikotel!** 27an 50 urte bete ziren ezkondu zinetela! Ederki pasatuko dugu igandean. Besarkada handi bat, etxekoan partez.

ESKERTZA

88ko kintokoei eskerrak eman nahi dizkizuet nirekin gogoratzeagatik. Mila esker, benetan.



GOIMEK

ARTEZKETA ZILINDRIKOKO LANGILEA BEHAR DA

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba bat da. Mekanizazioarako intente osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu. Gure aktibitatea makina erraminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizazioa bideratzen dugu.

Zereginak: CNC artezketa zilindrikoko makinak eta programazioa menperatzea. Doitasun handiko bukatze lanak menperatzea.

Eskatzen da:

- ① Titulazioa: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- ① Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- ① Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- ① Ekimena.
- ① Taldean lan egiteko gaitasuna.
- ① Autonomia eta arazoak konpontzeko gaitasuna.
- ① Eglaztapen tresnak erabiltzeko ezagutzak izatea.

Eskaintzen da:

- ① Berehalako inkorporazioa.
- ① Esperientzia eta gaitasunen araberako soldata.

DANOBATGROUP

Interesatuak bidali CV Giza Baliabide departamentura: ecarballo@goimek.com

30 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Kalebarren eta Aita Agirre
plazan.

12:00 Kale Kantariak

Kalebarren plazatik irtingo
dira.

1 domeka

Informazio mahaita

11:00 Hiesaren eguna

Hiesaren Kontrako
Nazioarteko eguna dela-eta,
informazio mahaiak jarriko
dituzte Kalebarren plazan.
Arratsalde, 17:30etik aurrera
egongo dira.

3 martitzena

Ikastaroa

18:00 'Elkar ondo trata dezagun'

Kalamua Guraso Elkarrekin
antolatuta, Kultur Etxean.

4 eguztina

Erakusketa

18:30 'Altzola gogoratzen'
Ongarri argazkilari taldeak
antolatuta, Altzolari buruzko
argazki erakusketa jarriko du
Kultur Etxean.

Aurkezpena

19:00 'Ahotsak'

Ahotsak.com proiektuan parte
hartu duten herritarrei
eskerrak emateko ekitaldia.
Kultur Etxeko sotoan.

Musika

10:30 'Baga, biga, higa'

Mikel Markez eta Eñaut
Elorrieta musikariek euskal
musikaren transmisioa egingo
diete DBHko eta Batxilergoko
ikasleei. Herriko Antzokian.

11 eguztina

Mahai-ingurua

18:00 'Parkinsona ezagutzuz'
Deparkelek eta Ongizate
Sailak antolatuta, Kultur
Etxean.

13 barixakua

Bakarriketa

20:30 'Euskararen espektakulue'

Oihan Vegak aurkeztuko du,
Herriko Antzokian.



Gaur, Kultur Etxeko
sotoan egingo den
jostailuen inguruko
erakustaldian
aurkituko gaituzue,
16:30etik 19:30era



Abenduak 1,
igandea, ordezkarien
asanblada: 16:00etan;
98an, 97an eta 96an
jaiotakoak. 17:30ean;
2001, 2000 eta 99an
jaiotakoak

OHARRA

Abenduaren 6a jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu
BARREN kaleratuko. Hala ere bulegoa zabalik egongo da
astelohenetik ostegunera. Hurrengo alea abenduaren 13an
jasoko duzue.

GUARDIAK

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Egunez 9:00 - 22:00

29	Yudego
30	Zabaleta
	Goizez: Barrenetxea
1	Zabaleta
2	Barrenetxea
3	Ibañez
4	Garitaonandia
5	Etxeberria
6	Fernandez
7	Yudego
8	Yudego
9	Zabaleta
10	Fernandez
11	Ibañez
12	Garitaonandia
13	Etxeberria

Gauetz 22:00 - 9:00

Yudego
Barrenetxea
Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego
Yudego
Etxeberria
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Etxeberria

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«El mayordomo»

29, barixakua: 22:15
30, zapatua: 19:00/22:15
1, domeka: 19:00/22:15
2, astelehena: 21:30

«Percy Jackson y el mar de los monstruos»

1, domeka: 16:30

«Amaren eskuak»

5, eguztina: 21:30
6, barixakua: 22:15

«Prisioneros»

7, zapatua: 19:00/22:15
8, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30

LED argiak erabiltzeko arrazoiak

Argiztapen sistema berri baten atarian gaude: Led sistema. Betiko bonbilari agur esatea ez da erraza izango, baina argiztatzeko sistema txiki honek eraginkortasun energetiko handiagoa eskaintzen du. Ikus ditzagun zeintzuk diren led sistemaren abantailak:

- ▶ %90 gutxiago gastatzen du
- ▶ 100 aldiz gehiago irauten du
- ▶ Ez da ohiko bonbilak beste berotzen
- ▶ Ekologikoa da
- ▶ Argi ultramore eta infragorriarik ez dute botatzen
- ▶ Kolorezko argiekin apaintzeko oso egokiak dira
- ▶ Kolpe eta bibrazioak oso ondo jasaten dituzte



MAR
ARROZTEGIA
Era guztietako arotz lanak!

Tel./Faxa: 943 631 471
Mugikorrak: 809 054 978
Olaso poligonoa 16, 56 CH
L_rva8@hotmail.com

- Etxe barruko ateak eta blindatuak
- Tarimak eta parket flotatzailea
- Horma-armairuak
- Sukaldeak eta etxetresna elektrikoak

ETORRI ZAITEZ ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA

SANTANA
Igor Santana
SANTANA ERREKONSTRUKZIOA, S.L.

Ursasendi kalea 17. beheko
Tel: 943 740 830
955 714 955
santana@urginuzag@hotmail.com
20879 Elgoibar (Gipuzkoa)

- Amiantoa
- Fibrozementoa
- Gasa
- Berokuntza
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Eguzki energia

SIEMENS

7 Kg.

399€

SIEMENS garbigailua
WM12E467EE
1200 Rev - A+++

7 Kg.

459€

SIEMENS lehorgailua
WT46E3F4EE
Kondentsazio elektronikoa
Sentsoreen bidezko lehorketa

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

vinos Solera Eibarresa

www.vinosconsolera.com

OnLine Denda



Ardo, Garagardo eta Likore Banaketa

Gabonetako Eskaintza Berezia!

Etxez - Etxeko Zerbitzua

Jarraitu



6 Botila
Anna Codorniu Vintage Erosita



Eraman doan 2 botila,
Aukeratu bi hauen artean

Viña Pomal Crianza
Selecc. Centenario



Raimat Chardonnay



49,99 euro

6 Botila
**Viña Pomal Crianza
Selecc. Centenario Erosita**



Eraman doan botila 1
Anna Blanc de Blancs



36,99 euro

6 Botila
Campillo Reserva Erosita



Bodega ezagutzeko
gonbidapena
eta kata 2 Lagunentzat



82,11 euro

6 Botila
Viña Real Reserva Erosita



Eraman doan
3 ardo kopa



47,92 euro

KONTSULTA EZAZU GURE WEB-EAN :: www.vinosconsolera.com
GUSTATZEN ZAIZKIZUN ARDOEN ESKAINTZAK ETA
ZEURE ETXEAN JASOKO DITUZU PREZIORIK ONENEAN



Abenduko Zapatu Goizetan hurbildu gure Ardo eta Likore OUTLET-era,
Goizeko 10:00etatik - 14:00ak arte

Helbidea: Ibur - Erreka Poligonoa Z/G - 20600 Eibar

Tel.: 943 201353 / 943 206614 - E-maila: info@vinosconsolera.com

*Prezioak BEZ barne